

EUSKARA DEPARTAMENTUA

2015-2019 LEGEALDIKO MEMORIA

1.- LEGEALDIAN ZEHAR EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

2.- LEGEALDIAN ZEHAR JASOTAKO DIRULAGUNTZAK

3.- EGITASMORIK GARRANTZITSUENAK

- a) GU ERE BERTSOTAN.
- b) BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA HITZARMENA
- c) HAUR JAIO BERRIEI OPARIA
- d) AISA IKASTAROA ETA ETORRI BERRIENTZAKO HARRERA
- e) EUSKAI SARIAK
- f) EUSKARAREN EGUNA
- g) EUSKARA INDARTZEKO IKASTAROAK
- h) SOZIOLINGUISTIKA IKASTAROAK GAZTEENTZAT
- i) ENPRESA EUSKARAZ HANDITZEN (Udal Elkarearekin batera)
- j) MINTZALAGUNA EGITASMOA (Udal Elkarearekin batera)
- k) MERKATARITZAKO AGERIKO ELEMENTUAK
- l) ZARAUZKO HIZKETAN
- m) ZARAUZKO IDAZLEAK
- n) AHOLKU BATZORDEA
- o) UDAL EUSKALTEGIA
- p) BEKA SISTEMA

4.- EUSKARAREN ERABILERA PLANA

5.- EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA

6.- EUSKARALDIA

7.- UEMArekin elkarlana

1.- LEGEALDIAN ZEHAR EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

	Urteko dotazioa	Eskaera kopurua 2015-2018	Emandako dirulaguntzak 2015-2018
Euskara sustatzeko dirulaguntzak	5.000	11	18.511,65
Errotuluak euskaratzeko dirulaguntzak	2.000	21	4971,05
Irudi korporatiboa euskaratzeko dirulaguntzak	2.000	25	6027,68
Webguneak euskaratzeko dirulaguntzak	2.000	15	5106,77
Euskara ikasteko beka	39.500		138.779,78
GUZTIRA			173.396,93

Izendunak	2015	2016	2017	2018	2019
HITZA	35.000	30.000	31.500	39.000	39.000.-
ERLO	25.000	30.000	30.000	38.000	39.000.-
KORRIKA	2.898.69 <i>2. kapitulutik</i>	-	3.600	-	3.600.-

2.- LEGEALDIAN ZEHAR JASOTAKO DIRULAGUNTZAK

Zarauzko Udalaren departamentu guztiek euskararen sustapenerako egiten dituzten e kintza guzti engatik dirulaguntzak eskatzen dira Eusko Jaurlaritzan eta Gipuzkoako Foru Aldundian.

	2015	2016	2017	2018
Eusko Jaurlaritza	65.000		65.000	
Gipuzkoako Foru Aldundia	22.112,5	23.628,12	18.017	15.754

Eusko Jaurlaritzak ez du dirulaguntza deialdirik egingo hemendik aurrera Funts Foralaren bitartez jasoko dugu euskara sustatzeko eskumenari dagokion finantzaketa.

3.- EGITASMORIK GARRANTZITSUENAK

a) GU ERE BERTSOTAN.

Aurrekontua:

2015-2016 ikasturtea	2016-2017 ikasturtea	2017-2018 ikasturtea	2018-2019 ikasturtea
8.541,92	8.575,91	8.234,25	7.941,02

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak Zarauzko Udaleko Euskara Zerbitzuarekin batera antolatzen du GU ERE BERTSOTAN proiektua.

Helburuak:

Bertsotarako zaletasuna piztea.

Haurren eta gazteen aurrean euskara prestigiatzea eta erabiltzeko motibazioa piztea.

Ikasleen euskararen erabilera maila eta kalitatea handitzea

Metodologia:

Bertsolari batek ordubeteko eskola ematen du hamabostean behin gela bakoitzean, eta tarteko astean ikastetxeko irakaslea arduratzen da programa hurrekin lantzeaz. Hark lagunduta, hainbat gai landu dituzte: bertsogintzaren historia, irudimena eta sormena, bertsokak egiteko teknikak, ideien antolaketa, memorizazioa, entzuten ikastea, talde lana eta jarrera parte hartzailea...

b) BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA HITZARMENA

Aurrekontua:

2015	2016	2017	2018
5.242,33	4.665,16	4.438	4.490,61

Hitzarmena 2005ean sinatu zen lehen aldiz.

32 establezimenduk hartzen dute parte.

Helburuak: establezimenduetan euskararen erabilera bultzatzea. Bezeroei arreta euskaraz eskaintzea.

Euskarak duen balio erantsia ezagutaraztea.

c) HAUR JAIO BERRIEI OPARIA

Helburua: euskara familiaren baitan transmititzea eta erabiltzea. Gurasoak familia transmisioaren garrantziaz jabetzea.

- Lehen haurra izandako gurasoei bidalitako eskutitzak eta euskararen transmisioari eta erabilerari buruzko aholkuak.
- Autoan jartzeko pegatina
- Hazi Hezi aldizkaria
- Haurrentzako ipuinak eta euskal abestien Cda

d) AISA IKASTAROA ETA ETORRI BERRIENTZAKO HARRERA

Immigrazio sailarekin elkarlanean harrera ikastaroa eta AISA elkartzea erabaki zen.

Gaur egun Euskaltegian egiten dira harrera ikastaroak AISArekin tartekatuz.

Urtean bi ikastaro egiten dira.

Partehartzaile kopurua SAIO BAKOITZEAN 12-15.

e) EUSKAI SARIAK (2018an ez da egin)

Merkataritzan, ostalaritzan eta "sarean" euskararen erabilera bultzatzeagatik nabarmendu diren establezimendu eta elkarteak.

	2015	2016	2017
Euskara ere sarean	Playeruak App	Arkamurka	Ekolio
Euskara, balio erantsia	Chapucetti	Lakari	Laia
Euskara ere menuan	Joshe Mari taberna	Mauka	Kikara

Artista	Mendi	Iñigo Materola	Iñigo Ormazabal
---------	-------	----------------	-----------------

Sari hauek urtero emateko asmoa dago, eta urtero Zarauzko artista baten lanak emango dira.

	2015	2016	2017
Artista	Mendi	Iñigo Manterola	Iñigo Ormazabal

f) EUSKARAREN EGUNA

Aurrekontua:





2015	2016	2017	2018
7.433,90	4.665,16€	8.698	9.164,15

Urtero antolatzen dugun ekimena, Euskararen egunaren bueltan.

Helburu nagusia euskararen normalizazioaren aldeko sentiberatze lana egitea da, herritarrentzat eta bereziki ikasleentzat.

Egitarau zabal eta partehartzailea antolatzen dugu hainbat eragilerekin batera. Adibidez, 2017an 1.679 pertsonak hartu zuten parte.

Pegatina sariaren irabazleak:

2015	2016	2017	2018
			

g) EUSKARA INDARTZEKO IKASTAROAK

Aurrekontua:

2015-2016 ikasturtea	2016-2017 ikasturtea	2017-2018 ikasturtea	2018-2019 ikasturtea
10.367,66	7.577,00 €	14.764,9	14.350

2014an hasitako ekimena, herriko ikastetxe eta euskaltegiekin elkarlanean.

Helburua:

Kanpotik etorri berri diren ikasleak euskarara hurbiltzea, bai akademikoki errefortzua eskainiz, bai modu ludikoan euskarak beren bizitzaren edozein esparru bete dezakeela ikusaraziz.

Oso ondo baloratua dago egitasmo hau ikastetxe eta gurasoen partetik.

LHko 4 ikastetxeetako ikasleek hartzen dute parte (Antoniano, Orokieta, Ikastola eta La Salle)

Eta DBHko Antoniano, Lizardi eta La Salle ikastetxeetakoe.

2018-2019ko ikasle kopurua:

LH: 24 ikasle batz besterorero (AEKrekin daukagun kontratu bidez)

DBH: 29 ikasle batz besterorero (Udal Euskaltegian arratsalde)

h) SOZIOLINGUISTIKA IKASTAROAK GAZTEENTZAT

Aurrekontua:

2015-2016 ikasturtea	2016-2017 ikasturtea	2017-2018 ikasturtea	2018-2019 ikasturtea
17.975	17.975	10.650	12.000

Ikastetxe guztietako DBH4ko ikasleekin lantzen den egitasmoa.

Helburuak:

- Gure gazteek euskararen normalizazio prozesuaren berri izatea.
- Euskararen berreskurapen eta galera prozesuak ezagutzea.
- Soziolinguistikari buruzko oinarritzko edukiak.
- Norberak berreskurapen prozesuan egin dezakeenaz jabetu.
- Erabilera bultzatu, euskararen aldeko jarrera kontzientea sustatu...

EMUN aholkularitzarekin daukagun kontratu bidez egiten dugu DBH4ko ikasle guztiekin.

Oso ondo baloratua dago. 400 ikaslek hartzen dute parte urtero-urtero.

2018an batxilergoko eta lanbide heziketako ikasleekin ere egin ditugu prestakuntza saiok, batez ere

EUSKARALDIari begira. Saiok arrakastatsuak izan dira, Oteitza eta Lizardiko ikasle gazteek hartu dute parte. Eskualde osoan egin dira saiok, EMUN aholkularitzak eman ditu eta Udal Elkarteak ordaindu.

Adin horretako gazte ugari hartu du parte Euskaraldian.

i) ENPRESA EUSKARAZ HANDITZEN (Udal Elkareekin batera)

Aurrekontua guztira: 70.541,79 €

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako enpresa txikiei (10 langile bitartekoak) euskaraz lan egiteko laguntza emateko helburua dauka egitasmoak.

Programak bi urteko iraupena dauka, 2017ko azaroan hasita eta, guztira, 70.541,79 euroko aurrekontua erabiliko du Udal Elkarteak programa garatzeko.

Lehendabiziko deialdian bailarako 12 enpresek hartu dute parte eta hainbat lan egin dituzte: euskara-plana diseinatu, itzulpenak, webgunea egokitu eta euskaratu, dokumentu-ereduak landu...

Aholkularitza eta laguntza ematen zaie enpresa txikiei:

- enpresan euskaraz jarduteko zein neurri hartu eta landu
- informazioa eta aholkularitza (udalaren diru-laguntzak, bestelako laguntzak...)
- itzulpenak, testu-ereduak egokitu
- Errotulazioa euskaratu
- Softwarea euskaraz jarri
- Bestelakoak

j) MINTZALAGUNA EGITASMOA (Udal Elkarearekin batera)

Zarautzen 14 talde eta 59 lagun ibili dira urtero urtero.

Udal Elkartearen balorazioa oso ona da. Egitasmoan parte hartzen duten mintzalagun eta bidelariena ere bai.

2009ko urtarrilean martxan jarri zen lehenengo aldiz Mintzalagun egitasmoa Urola Kostako herrietan: Zumaia, Getaria, Zarautz, Aia eta Orion.

Programaren bilakaera ona izan da eta urterik urtera parte hartzaile kopuruak gora egin du edo mantendu egin da. 2009an 41 mintzakide izan genituen, 2010ean 54, 2011n 83, 2012an 76, 2013an 67, 2014an 75, 2015ean 91, 2016an 100, 2017an 84 eta 2018an 101. Urtean, batez beste 77 pertsona eta 22 talde inguru.

k) MERKATARITZAKO AGERIKO ELEMENTUAK

Establezimenduen eskaerak jaso eta erantzuten dira. Itzulpenak, zuzenketak, kartel ereduak....

l) ZARAUTZ HIZKETAN

2015-2016-2017an Badihardugu elkarteari grabatuta dauden hainbat pasarte kodifikatzea eskatu zitzaion. Gaur egun Zarautzen egindako grabazio guztiak sarean daude. <https://ahotsak.eus/zarautz/>

Hizlariak: **103**; Zintak: **126**; Pasarteak: **1.765**;
Transkribatutakoak: **399**; Audioak: **168**; Bideoak: **1.596**

m) ZARAUZKO IDAZLEAK

Dijitalitatea enpresarekin kontratua dauka Udalak [Zarauzko Idazleak](#) webgunea elikatu eta ostatatzeke. Urtero ostatatze kostea ordaintzen da.

n) AHOLKU BATZORDEA

2018an ez dugu deialdirik egin.

Euskaraldiko partehartze prozesuak, Euskaraldiko Batzordeak eta Eskola Kontseiluak bete dute paper hori azken urtean.

o) UDAL EUSKALTEGIA

IKASTURTEA	2014-2015	2015-2016	2016-2017	2017-2018	2018-2019
IKASLE KOPURUA	322	359	272	248	228
EUSKALDUNTZE TALDEAK	4+ AISAKo 2	2+ AISAKo 2	3+ AISAKo 1	4+ AISAKo 1	3+ AISAKo 1
ALFABETATZE TALDEAK	5	5+udaleko 5	5+udaleko 1	5+udaleko 1	5+udaleko 1
AUTOIKASKUNTZA	171	186	168	137	121

p) BEKA SISTEMA:

- Baldintzak:
 - Zarautzen erroldatua egotea.
 - Ikastaroan eskainitako orduen %80 hartzea gutxienez.
- Dirulaguntza:
 - Langabezia dauden ikasleak: ordaindutako matrikularen %100
 - Gainerako ikasleak ordaindutako matrikularen %75
- Jaso dezaketen gehienekoa: urteko gehienez ere 400,00€ (600,00€ barnetegietarako)
- 2018-2019 deialdirako muga hauek igoko ditugu: 500,00 eta 700,00 eurotara

4.- EUSKARAREN ERABILERA PLANA UDALEAN

Kontratazioa. Hizkuntza baldintzak txertatzea

2015 eta 2018 urteen bitartean egindako kontratu ireki eta negoziatueta jarritako hizkuntza baldintzak:

2015	17 kontratueta
2016	19 kontratueta
2017	25 kontratueta
2018	27 kontratueta

Langileen hizkuntza prestakuntza

Trebakuntza ikastaroak bakarka edo taldeka antolatu ditugu Udal Euskaltegiarekin batera. 2015-2018 urteetan udal langilek 74 ikastaroetan hartu du parte.

Langileen hizkuntza eskakizunen betetze maila %90,42koa da.

Urteroko kudeaketa planak prestatu eta jarraipena egitea departamentuz departamentu.

Langileentzako prestakuntza saioak "Zarautz Lider eta Eredu"

Elebitasun ez orekatua, euskara lehenesteko irizpideak.

Udalak eta hirugarrengeok antolatzen dituzten jardueretako hizkuntza baldintzak zehaztu eta horien jarraipena.

VI. Plangintzaldia:

2013-2017 Plana ebaluatu.

ZERBITZU-HIZKUNTZA	Euskaraz	Elebitan
Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak	90	10
Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak.	30	60
Jendaurreko ekitaldiak	81	
Herritarrei begira antolatutako ikastaro eta jarduerak	60	20
Webgune eta sare sozialen edukia	10	90
Idatzizko harremanak	48,6	48,7
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak.	91,3	5,2
Harrera	98,4	100
Telefonoz, on-line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	73	
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak	98,1	

LAN-HIZKUNTZA	EUSKARAZ	ELEBITAN
Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	80	10
Informaziorako edota komunikaziorako tresnak	100	
Lan-bileretako idatziak	91	6,7
Erakundearen barne harremanetarako idatziak	92	6,9
Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak	94,7	
Erakundearen barruko telefonozko harremanak	75	
Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	91	
Pertsonen kudeaketa	80	20
Laneko prestakuntza	30	
Administrazioekiko idatzizko harremanak	79,3	20,1
Administrazioekiko ahozko harremanak	90	
Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak	65,1	24
Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak	77,1	
Beste entitateekiko idatzizko harremanak	70	15
Beste entitateekiko ahozko harremanak	80	
Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza eskakizunak	90,42	
Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna	95,24	
Langileen eta erakunde-ordezkarien balorazioa erabilera planarekiko	94,9	
Langile eta erakunde ordezkarien parte-hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan	75	
Kudeaketa planaren jarraipena zuzendaritza batzordeak egitea (0-%100)	60	
Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila	80	

(0-%100)		
Euskara sortze hizkuntza (0-%100)	82,2	13,2
Dokumentuen estandarizazioa (0-%100)	80	
HOElen betetze maila (0-%100)	75	

Zarauzko Udalaren egoera ona da:

INDARGUNEAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> - Zarauzko egoera soziolinguistikoa euskararen aldekoa da: zarauztarren %74,14 euskalduna da eta beste %10,87 euskara ulertzeko gai da. Belaunaldi gazteenak dira euskaldunenak. - Zarauzko Udalaren jarduna euskaraz da nagusiki, eta herrian ere lehentasuna ematen zaio beti. Euskararen erabilerak herritarren onarpen zabala du, eta udal ordezkari eta langileen jarrera ere aldekoa da - Lanpostuei ezarritako hizkuntza-eskakizunen betetze-maila oso handia da. Langile eta zinegotzien euskara mailak aukera ematen dute lan hizkuntza euskara izan dadin. - Administrarien lanpostuei 3. hizkuntza-eskakizuna ezartzea - Elebitasun orekatua gainditzeko eta euskara ondo lehenesteko irizpidea nahikoa barneratuta dago langile eta zinegotzien artean - Euskara lan-hizkuntza bihurtzea lortu dugu neurri handi batean - Udalarekin gauzatutako kontratuetan eta Udalak baimendutako jarduera guztietan hizkuntza-irizpideak ezartzen dira - Euskara Departamentu dinamikoa du Zarauzko Udalak, ekimen eta esperientzia berrietan parte hartzeko prest dagoena. 	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren hizkuntza hautua jaso eta kudeatzea. Orain arte ez dugu aukerarik izan herritarren hizkuntza hautua eta espedienteen kudeaketarako aplikazioa lotzeko. Orain espedienteen kudeaketarako aplikazioa aldatu egin du Udalak. Guretzat aukera paregabea eta ezinbestekoa da euskararen normalizazioan aurrerapausoak emateko. - Kontratuen kudeaketarako Kontratuazain aplikazioaren erabilera orokortzea. Hlen betetze-mailaren jarraipena erraztuko luke, baita Departamentu guztiak hizkuntzaren jarraipenean inplikatzeko ere. - Diru-laguntza guztietan hizkuntza-irizpideak sartzea eta jarraipena egitea - Herritarrek Udalarekiko harremanetan euskarazko hizkuntza-hautua egin dezaten sustatzea - Elebitasun ez orekatua sistematizatzea eta langile guztiek barneratzea Udalak euskaraz funtzionatuko duela defektuz, herritarren hizkuntza-aukera errespetatuz beti ere. - UEMAren lankidetzeta eta mankomunitateko udalen elkarlana - Udal Lege berriak eta hura garatzeko prestatzen dabilzan dekretu berriak ate berriak ireki ditzake. - Bikain deialdian parte hartu eta ziurtagiria eskuratzeak planarekiko atxikimendua handitu dezake. - Euskaraldiak balio lezake herritarrak aktibatze eta administrazioetan eragiteko.

Hala ere bada zer hobetu:

AHULGUNEAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentuak (txostenak, araudia...) euskaraz sortzeko zailtasunak, jatorrizko testuak eta eredu berriak gaztelaniaz bakarrik daudenean - Elebitasunaren beharra hainbat espedientetan. Euskaraz landu arren, zenbait espediente (hirigintza eta obretako gaiak, hainbat aseguru etxerekiko harremanak...) gaztelaniara itzuli behar izaten ditugu hartzaileek eskatuta. - Zenbaitetan erosoagoa da “defektuz” dena ele bitan egitea, bereizten aritu gabe. Dokumentu elebidunetan euskara ondo lehenesteak ere bere lanketa eskatzen du. - Langile batzuek gaztelaniarako joera dute ahoz, lankideen arteko harremanetan. Jendaurrean lan egiten dutenen artean, gainera, gaztelaniarako joera horrek zuzeneko eragina du Udalaren irudian - Aldi baterako langile batzuek ez dute beren jarduna euskaraz egiteko euskara maila nahikorik, nahiz eta dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izan - Zenbait langilek erraztasun gehiago dute oraindik ere gaztelaniaz idazteko, euskaraz idazteko baino - Hizkuntza-irizpideen jarraipena ez da beti egiten era sistematiko batean 	<ul style="list-style-type: none"> - Lege berriek (kontratuak, gardentasuna...) ereduak goitik behera aldatzea eskatu dute - Kanpoko erakundeetatik datozen zenbait jarduera edo kanpainak ez dituzte betetzen Zarauzko Udalaren hizkuntza-irizpideak - Hauteskundeak egiten diren bakoitzean udal ordezkarien hizkuntza gaitasuna alda daiteke; ez dago bermerik ordezkari guztiak euskaldunak izateko. - Urte gutxitan langile berri asko hasiko da lanean udaletxean, eta gehienak seguru asko ez dira zarauztarrak izango. Garrantzitsua izango da haiek herriko egoera soziolinguistikoaren jakitun egitea eta Udalak onartutako Hlak barneratzea.

2018-2022 Euskararen Erabilera Plana prestatu eta idaztea. Abenduko Osoko Bilkuran aho batez onartua. Udal langileen partaidetzarekin prestatutako plana (20 el karrizketa eta 60 inkesta).

Udalaren Hizkuntza Irizpideak ere onartu ditu Planak.

Planaren helburu estrategikoak:

1. Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.
2. Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatzea.
3. Euskara administrazio barneko lan hizkuntza izan dadin bermatzea.

Jarraipen Batzordea osatu behar da.

Datorren legealdirako giltzarria izango da, aurreko planaren betetze maila ikusita eta langile eta ordezkari politikoen atxikimendua kontuan hartuz.

5.- EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA

VI. Plangintzaldia:

2018-2022 Euskara Sustatzeko Ekintza Plana prestatu eta idaztea. Abenduko Osoko Bilkuran aho batez onartua.

Zarauzko Egoera soziolinguistikoaren azterketatik abiatuta:

ZARAUZ Hizkuntza gaitasuna	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016
-EUSKALDUNAK	63,81	68,17	70,11	72,17	71,4 1	70,12	70,03	74,14
-IA-EUSKALDUNAK	13,85	13,83	14,04	14,18	14,96	16,73	17,01	10,97
-ERDALDUNAK	22,34	17,99	15,85	13,65	13,63	13,15	12,97	14,89

ZARAUZ	2011	2016
KALE ERABILERA	50	50,5

ZARAUZ transmisioa	1991	2001	2011	2016
EZAGUTZA	70,1	71,4	70	74,14
LEHEN HIZKUNTZA	62,9	60	55,2	-
ETXEKO HIZKUNTZA	48,4	48,5	40,5	-

Herritarren partaidetzarekin idatzitako plana.
Datozen urteetarako lehentasunak ezartzen ditu.

Datorren legealdiko egitasmoak gidatuko ditu. Zarautz benetako arnasmune izatea da jomuga. Erabilera, erabilera errazteko baliabide eta azpiegiturak, familia transmisioa, hizkuntzaren prestigioa, bezeroentzako balio erantsia, ostalaritza eta merkataritzan zerbitzuaren kalitate ikurra, komunitatea osatzeko tresna, euskaldunen aktibazioa, gazteak, turismo-marka... datozen urtetako gakoak izango dira.

6.- EUSKARALDIA

Esan daiteke azken bi urtetako lana EUSKARALDIARI begira egon dela.

Euskaldunak aktibatzeke helburuarekin Kike Amonarrizen hitzaldia antolatu genuen 2017an. Aholku Batzordean bat egin zuen. 150 lagun joan ziren hitzaldira. 100 lagunek izena eman zuten konpromiso maila desberdinetarako.

Euskaltzaleen Topagunearekin batera partehartze prozesua jarri genuen abian 60 bat lagunek hartu zuten parte.

Hortik lehentasunak sortu zituen eta lan-taldeak ere bai: Kultura lan-taldea eta Euskaraldirako lan-taldea.

- Kulturako lan-taldeak Euskal Jaierarako proposamena egin zion Udalari.
- Euskaraldiko lan-taldeak 2018 urte guztian zehar lanean jardun du Zarautzen Euskaraldia antolatzen.

EUSKARALDIA: ekimena arrakastatsua izan da gure herrian. Topaguneari emandako diru-laguntza bidez dinamizatzailea kontratatu dugu egun erdiz. Bere lana klabea izan da Batzordea dinamizatzeke, formazio

saioak emateko, bilerak antolatu eta lana banatzeko...
 Behean Topaguneak egindako balorazioaren atal batzuk:

Parte-hartzaile kopurua	Guztira	Ahobizi	Belarriprest
	4.554	3.832	722
Generoa	Emakumezkoak	Gizonezkoak:	Ez-binarioak:
	2.737	1.774	43
Euskaraldian zehar egindako ekitaldi publikoak	<ul style="list-style-type: none"> - 2018.04.22 Aurkezpen ekitaldia - 2018.10.23 Izen-ematearen irekiera - 2018.11.08 Ttak! bakarriketa - 2018.11.23 Hasiera ekitaldia - 2018.12.03 Itxiera ekitaldia 		
Zertan asmatu da?	<p>Herrian Euskaraldiaren presentzia egon da udaberritik aurrera (ekitaldi ezberdinetan, sari-banaketetan, talde ezberdinek ateratako argazkiak...).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hainbat elkarte eta eskolekin izandako harremana. Lankidetzaren horrek herrira hobeto iristea ahalbidetu digu eta lanak asko erraztu dizkigu. - Hitza eta Erlorekin izandako harremana, Euskaraldia gerturatu ahala batez ere. - Udalaren kanpoan jarritako markagailua. Ikusgarritasun handia eman dio ekimenari eta puntu esanguratsua bilakatu da. - Txapa banaketarako mahaiak kalean jartzen hilabetez asteen hirutan. - Hasiera ekitaldirako poteoa. Jende asko batu zen eta nabarmena zen jendearen ilusioa. 		
Zertan ez da asmatu?	<p>Amaierako ekitaldia prezipitatu xamarra izan zen, berandu ibili baikinaren prestaketan.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Batzordearen inplikazio maila ere handiagoa izan zitekeen, udalaren eta dinamizatzailearen gain utzi dira erabaki eta lan asko. - Gazteak erakartzen ere ez dugu asmatu. Parte-hartu duten arren, ez da ia gazterik egon antolaketan. - Hamaikakoa aukeratzean ez genuen kontuan izan figura publiko izatea baliogarria izango zela. Gero zailtasunak izan ditugu hamaikakoko kideak jendaurrera animatzeko. 		
Udalarekin izandako Lankidetzaren	<p>Udaleko euskara teknikariak buru-belarri ibili dira Euskaraldiarekin eta inplikazio handia izan dute batzordean. Talde-motor moduko bat osatu dute dinamizatzailearekin batera eta astero edo ia astero bildu izan dira.</p> <p>Aipatzekoa da Euskara zinegotziaren presentzia, eta lana bilera eta ekitaldi guztietan.</p>		
Aurrera begira, nola ikusten duzu batzordea?	<p>Iniziatiba gehiago behar duela uste dut, orain arte euskara teknikariak eta dinamizatzailea ibili baikara tiraka. Bestetik, gazteen eta bestelako entitateen presentzia ere lagungarria izango litzateke herriko esparru guztietara heltzeko. Talde izaera handiago batek eta helburu bat markatzeak asko lagunduko lioke, aurtengoan Euskaraldiaren kudeaketa praktikora mugatu dela iruditu zait.</p> <p>Zarauzko Euskaltzaleen Topagunea osatzeko egin ziren 3 saio haietan bildutako jendea eta ideiak berreskuratu eta taldeari zein forma eman nahi zaion erabaki beharko luketela uste dut. Horretarako, jarraitzeko asmoa duten pertsonak bildu eta denen artean norabide bat zehaztea beharrezko jotzen dut.</p>		

2019an ez da Euskaraldiaren ariketa praktikorik izango. 2020an egingo da berriz ere, eta norbanakoak ezezik

elkartek, erakundeek, establezimenduek hartuko dute parte.
2019a, beraz, hurrengo urtea prestatzeko erabiliko dugu.

7.- UEMArekin elkarlana

Ureko kuota

2015	2016	2017	2018
22.500	22.500	22.500	22.860

Abizenak euskaldundu kanpaina
Errenta aitopena euskaraz kanpaina
Kontuz Haurrak! pegatina
Erabilera planaren jarraipena
Berripapera

Bi lan-taldetan parte hartzen dugu:

- **Euskara eta turismoa gure udalerrietan**

Hartutako erabakiak:

- Euskararen erabilerari buruzko hizkuntza irizpideak bateratu
- Hizkuntzari buruzko aipamenak txertatu turistentzako argitalpenetan
- Udal Elkarteak hitzarmena sinatu du UEMArekin
- Turismo Departamentuak landutako Plan Estrategikoak jasotzen du gaia.
- Euskara eta Turismo departamentuen arteko lankidetzaz susutatu da.

- **Arnaguneentzako diskurtso egokia eraikitzen:** 10 oinarri nagusi landu dira.